

TRANSGENIKOAK NONAHI

2009ko apirilaren 21ean, Ibarretxeren EAJ-PNVk Eusko Jaurlaritzak utzi baino lehen bere azken erabakia hartu zuen: produktu transgenikoak ekoizteko baimena eman zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Genetikoki Eraldatutako Organismoen, Ohikoen eta Ekologikoen Koexistentzia Arautzeko dekretuaren bidez. Araudi berri honen helburua, lehenengo sektorean lan egiten dutenek edozein nekazaritza motan aritzeko aukera izatea omen da.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak berak, 2007an EAEa transgenikorik gabeko eremu bezala katalogatzeko erabakiak bi urte eskaseko iraupena baino ez du izan. Garai hartan, Eusko Jaurlaritzak bai gizakiengana eta baita abereengana iritsiko ziren elikagaiek genetikoki eraldatutako organismorik ez izatearen garrantzia nabarmendu zuen.

Izan ere, zalantza asko daude nekazaritza-produktu hauek bai ingurunean eta baita gizakion osasunean ere izan ditzaketan eraginen inguruan. Ingeniaritza genetikoren arloan aritzen diren zientifikoez ikertzen jarraitzen dute, baina oraindik ez dago datu zehatzik hauen eraginaren inguruan, beraz, dekretu hau indarrean jartzeko arrazoia ez dugu ulertzen.

Beste aldetik, Europan, jadanik, 5 herrialdetan (Frantzia, Grezia, Luxenburgo, Austria eta Hungria) arto transgenikoaren produkzioa debekatu egin da. Zerrenda honetan sartzen azkenengoa Alemania izan da, aurtengo apirilaren 14ean MON 810 artoaren haziak ez erabiltzeko erabakia hartu baitzuen.

Europar Batasunean, 1998. urtetik arto mota hau erabiltzea legeztatuta dago eta Herrialdeek bakarrik debekatu ahal dute baldin eta osasunean edota ingurumenean kalteak eragin ahal dituela frogatzen duten ikerketak aurkezten badituzte.

Honetik ondoriozta dezakegu, 6 herrialde hauek arto mota hau debekatzeko arrazoiak aurkitu dituztela, baina badirudi hemengo ikerlariak ez direla hain trebeak, izan ere joan den urtean (2008) Estatuan 80.000 hektarea landatu ziren eraldatutako artoarekin.

Gaur egun, edonork daki transgenikoak zer diren, hala ere baten bat enteratu ez bada, transgenikoak beste bizidun baten geneak artifizialki gehituta egin dituzten bizidunak dira.

Hau esanahia zientifikoa da, hiztegieta aurkitu dezakeguna, hizkera arruntera itzulita, transgeniko hitza edozein bizidunari (animalia, landarea...) beste bizidun baten informazio genetikoa sartzen zaionean eratzen den bizidun ez-natural berria izendatzeko erabiltzen da.

ORAIN BADAKIGU TRANSGENIKOAK ZER DIREN,
BAINA BA AL DAKIGU NON AURKITU AHAL
DITUGUN?

Alde batetik, egunero erosi eta jaten ditugun produktuen artean, asko transgenikoak dira. Askotan transgenikoak barazkiekin soilik lotzen ditugu baina oker gabilta.

Bai, egia da, barazkiak eta lurrarekin lotuta dauden gainontzeko produktuak gehien manipulatu direnak direla, izan ere, nekazaritza produktuen ustiapenerako erabiltzen diren lur-eremuak eskasak dira eta beraz, hauen emankortasuna handitu behar da kosta ala kosta.

Ez ahaztu eremu txiki hauek lehenengo munduan bizi garenon "beharrak" asetu behar dituztela.



Eraldatuak izan diren produktu horietako batzuk guregana heltzen dira zuzenean, baina beste batzuk ordea, animalien janaria bilakatzen dira, pentsu industrial moduan.

Animaliek pentsu hauek hartu eta denbora laburrean, abere-hiltegiatarra eramaten dira eta handik zuzenean dendetara. Azkenik, hauek xerra gozo bezala heltzen dira gure etxeetara. Beste abere batzuk aldiz, bizirik mantentzen dira, haien eratorriak lortu ahal izateko: arrautzak, esnea...

Beraz, bide ugari dauzkate transgenikoek guregana heltzeko, gure gorputzetan sartzeko, ixil-ixilik zarata egin gabe, gu ez gara ezta enteratu ere egiten.

Beste aldetik, aspaldi honetan modan jarri diren bioerregaiak buruz hitz egitea garrantzitsua da. Erregaien ekoizpenez arduratzen diren multinazionalak, erregai fosilen eskasiari aurre egiteko bioerregaien produkzio masiboari ekin diote.

Izenari "bio" aurrizkia lotzea ez da kasualitatea, aurrizki hau daukan edozein produktu naturarekiko errespetuarekin lotzen da eta ondorioz, biztanleriaren kopuru handi batek hauek ohiko erregai fosilak baino kalte ekologiko txikiagoa eragiten dutela uste du eta erregai aukeratzeko orduan, bioerregaiak nahiago dituzte.

Multinazionalak izen honekin gu engainatu nahi gaituzten arren, bio delako hauen ekoizpenak ondorio larriak ditu ingurugiroan: alde batetik, transgenikoak landatzeko erabiltzen diren lur-eremuak gero eta ugariagoak dira eta gainera hauen gehiegizko erabilerak ez du negutegi efektuko gasen isurpen maila murrizten, bioerregaiak ekoizteko prozesuan isurtzen den CO₂ kopurua hauen erabilerak suposatzen duen kopuruaren murriztea baino altuagoa da.



Elikagai transgenikoek gizakien osasunean hainbat eragin kaltegarri sor ditzakete, adibidez, transgenikoak erabili diren elikagaietan hainbat erresistentzia antibiotikodun geneak daudenez hauek gizakiei, animaliei eta bakterioei transferitu daitezke.

Honen ondorioz, gure organismoak antibiotikoen efektua neutralizatzeko ahalmena garatuko du, gaixotasun berriak sortuz, alergiak esate baterako.

Azkenik, egunero jantzen dugun arropa ere elementu transgenikoz beteta dago, izan ere, modu industrialean erabiltzen den kotoi gehiena transgenikoa da.

TRANSGENIKOZ INGURATUTA GAUDELA JAKIN ETA GERO, ZER EGIN DEZAKEGU?

Gauzarik garrantzitsuena, kontsumitzen dugunaz informatzea da, horretarako hainbat tresna daukagu: aldizkariak, internet...

Beste aldetik, baratzaren bat izatekotan hazi ekologikoak erabiltzen saiatu, batzuetan ez da erreza baina gero eta denda gehiago daude.

Azkenik, hauen kontra egiten diren kanpainak bultzatuz, transgenikoak erabiltzen dituzten marka komertzialei boikot eginez, informazioa zabalduz eta hainbat instituzioetan kexak jarritz.

Ez ahaztu alternatibak badaudela, hasiera batean eguneroko erosketak egiteko transgenikoak diren produktuen zerrenda eramatea astuna izan daitekeen arren, ohitura hartzea baino ez da.

Laster produktu transgenikoak erabiltzen dituzten markak zeintzuk diren buruz ikasiko dugu, normalean botere handiko multinazionalak izaten dira eta.

Greenpeace erakundeak aldiro argitaratzen du "Guía Roja y Verde de Alimentos Transgénicos". Hemen ikusi dezakezu transgenikoak dauzkaten elikagai eta edarien zerrenda:
<http://www.greenpeace.org/espana/es/reports/gu-a-roja-y-verde/>



eguzkibarakaldo@gmail.com

Tfnoa.:688693868

TRANSGENICOS HASTA EN LA SOPA

El 21 de abril de 2009 el PNV de Ibarretxe tomó la última decisión de su Gobierno antes de cesar: mediante decreto autorizó la producción de productos transgénicos en Euskadi, a pesar de que ese mismo Gobierno Vasco catalogó en el 2007 a Bizkaia, Araba y Gipuzkoa como "Territorios sin transgénicos". El supuesto objetivo de este último decreto de 2009 es facilitar que quienes trabajan en el primer sector puedan trabajar en cualquier tipo de agricultura.

Por lo tanto, la decisión que el propio Gobierno Vasco tomó en 2007 por la que declaraba la CAV como territorio libre de transgenicos no ha estado en vigor ni dos años. Durante ese periodo el Gobierno Vasco estuvo recalcando la importancia de que los alimentos que pudiesen llegar a los seres humanos y también a los animales no contuvieran productos transgenicos.

La razón son las numerosas dudas que existen sobre la influencia que estos productos agrícolas pueden tener tanto en la salud humana como en el medio ambiente. Los científicos que trabajan en el campo de la ingeniería genética siguen estudiando estos productos sin que hasta el momento hayan llegado a conclusiones definitivas. Dado que en estos dos años las condiciones no han cambiado no entendemos porque se ha derogado el decreto de 2007.

En Europa ya son 5 los países que han prohibido la plantación de maíz transgénico (Francia, Grecia, Luxemburgo, Austria y Hungría). El último país en entrar en esa lista ha sido Alemania donde el 14 de abril (2009) han tomado la decisión de prohibir la utilización de semillas del maíz MON 810. En la Unión Europea la utilización de este tipo de maíz está legalizada desde 1998, aunque los Estados pueden prohibir su utilización siempre que presenten estudios que demuestren que puede provocar daños en la salud humana o en el medio ambiente.

De esto podemos deducir que estos seis países han encontrado razones para prohibir este tipo de maíz, pero parece que los investigadores en el Estado español no son tan hábiles ya que en el año 2008 se han plantado 80.000 hectáreas de maíz transgenico

Hoy en día cualquier persona ha oído hablar de los "transgénicos", pero tal vez no tengamos tan claro los que son: especies (vegetales) a las que les han introducido de manera artificial genes de otra especie (vegetal o animal).

O dicho de otra manera; la palabra "transgénicos" la podemos utilizar al referirnos a cualquier especie vegetal o animal creada de manera artificial mediante la introducción de genes de otras especies.

AHORA YA SABEMOS QUÉ SON LOS
TRANSGÉNICOS, PERO ¿EN QUÉ PRODUCTOS
PODEMOS ENCONTRARLOS?

Por un lado, podemos encontrarlos en muchos de los productos que compramos y comemos a diario. A menudo identificamos los transgénicos con los vegetales, y es cierto que estos productos, relacionados con la tierra y las plantas son los que más se manipulan genéticamente.

La razón es sencilla; las tierras de cultivo son escasas y estos productos aumentan la productividad de esos terrenos. No olvidemos que estas reducidas tierras de cultivo tienen que "saciar" las necesidades de quienes vivimos en el Occidente enriquecido.



www.herrikolore.org



Algunos de estos productos nos llegan directamente, otros sin embargo se transforman en piensos industriales para el ganado. Los animales domésticos consumen estos piensos, posteriormente son llevados al matadero y de allí a la carnicería y demás establecimientos.

Finalmente llegan a nuestra mesa en forma de jugosas chuletas. Otro tipo de productos provienen de animales que en principio no son sacrificados: huevos, leche.... Por lo tanto, los transgénicos tienen numerosos caminos para llegar hasta nosotr@s, para entrar en nuestro organismo, sin hacer ruido y sin enterarnos.

Por otro lado, debemos fijar también nuestra atención sobre los famosos "bio-combustibles". Las multinacionales que controlan la producción de combustibles, y ante la escasez de los mismos, han iniciado la producción masiva de bio-combustibles, por supuesto transgénicos.

No es casualidad el que a este tipo de combustibles le hayan añadido el prefijo de "Bio". Esta palabra la relacionamos con productos respetuosos con la naturaleza y el medio ambiente por lo que mucha gente a la hora de adquirir combustible opta por esta opción pensando que son menos contaminantes que los habituales combustibles fósiles. Con este prefijo de "bio" las multinacionales pretenden engañarnos ya que la realidad es la contraria: la producción de bio-combustibles trae graves consecuencias en el medio ambiente.

Por un lado los terrenos agrícolas que se utilizan para la producción de estos combustibles son cada vez mayores, además, su excesiva utilización no reduce el vertido de gases que provocan el efecto invernadero. En el proceso de producción de los bio-combustibles el vertido de CO₂ es mayor que el que se reduce con su utilización en los vehículos.

Los alimentos transgénicos pueden perjudicar la salud humana. Por ejemplo; en los alimentos en los que hay transgénicos existen genes con resistencia a los antibióticos y estos pueden transferir esa característica a los seres humanos, animales y bacterias.

Como consecuencia nuestro organismo desarrollará el reflejo de neutralizar los efectos de los antibióticos, creando nuevas enfermedades, como las alergias.

Para finalizar; la ropa que vestimos a diario está compuesta por productos transgénicos, concretamente la mayoría de algodón que se utiliza en la industria textil es transgénico.

DESPUÉS DE SABER QUE ESTAMOS CONVIVIENDO A DIARIO CON LOS TRANSGÉNICOS NOS SURGE LA PREGUNTA: ¿QUÉ PODEMOS HACER?

Lo más importante; informarnos de lo que consumimos, para eso tenemos varios caminos: internet, revistas especializadas.... Por otro lado, quien tenga una huerta debe procurar utilizar semillas ecológicas, a veces no es fácil encontrarlas pero cada vez son más habituales los sitios de venta de estos productos.

Para finalizar, colaborando en las campañas que se realizan contra los transgénicos, haciendo boicot a las marcas comerciales que utilizan transgénicos, extendiendo la información y poniendo quejas ante las instituciones.

No olvides que hay alternativas a la hora de hacer las compras, aunque al principio pueda parecer algo engorroso llevar encima una lista de productos genéticos, es sólo cuestión de acostumbrarse. En poco tiempo reconoceremos las marcas que utilizan productos transgénicos, suelen ser poderosas multinacionales.



La organización Greenpeace publica periódicamente la "Guía Roja y Verde de Alimentos Transgénicos". Aquí puedes ver la lista de alimentos y bebidas con transgénicos: <http://www.greenpeace.org/espana/es/reports/gu-a-roja-y-verde/>